

Nafarkaria

• ostirala • 2001eko martxoaren 23a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Lizarra • Marga Gil (1908-1932) artistaren margolan eta eskulturen erakusketa Gustavo Maeztun zabalduko dute gaur
Beñardo Goietxe • «Herritarrei alfabetatzeko bidea zabalzea da Etxetik Plazararen asmo nagusia»

Bizikletaren arrisku eta beharrak



• MIKEL SAIZ


Iragan astean Doroteo Mugeta hil zen, egunero Burlatako etxetik Landabenera joaten zen 56 urteko ziklista, auto batek Beloso aldapan harrapatu eta gero. Heriotzak agerian utzi ditu ziklistek hirian dituzten arriskuak: autoen lastertasun handia, biribilguneak, trafikoa mantsotzeko gomazko oztopoak, bidegurutzeak... Heriotzak ere bizikletentzako bideak, bidegorriak alegia, sortzeko beharra azaleratu du. Bizikletazaleen aldarrikapenak gorabehera, Iruñean, oraino, garraio mota baztertua da bizikleta.



Lizarra • Sormena eta suntsipena

Gustavo de Maeztu museoak dikotomia horren inguruko egitarau mamitsua prestatu du

Gaur zabalduko da Marga Gil Roesset (1908-1932) artistaren lanak ezagutarazteko xedea duen erakusketa. Haren bitzitza —sakona, laburra eta mingotsa— abiapuntu izanen da sormenaren eta suntsipenaren arteko loturak aztertzeko.



Marga Gil margolaria (1908-1932) ipuinak ilustratzeko marrazkiak egiten hasi zen. Gerora bere artea eskulturaren esparrura ere zabaldu zuen, betiere sormenaren eta suntsipenaren arteko lehia murgildurik.

EGUNKARIA



MARGA GIL ROESSET 1908. urtean jaio zen. Umea zelarik margotzeko abilezia izugarria erakutsi zuen, eta bere arreba handienak idazten zituen ipuinak marrazki ederrekin laguntzen zituen. Umeak irakurtzeko ipuinak ziren horiek, eta hizkien artean tartekatzen ziren irudiak ere alaiak eta dibertigarriak ziren, baina erabateko dotoretasun, fintasun eta sakontasun berezi batez eginak.

Hamahiru urterekin, bere lanean maisutasun eta trebetasun harrigarria zuen margoekin, eta gerotzik irudiak zizelkatzeten ere hasi zen. Ama maisu baten lantegira eraman zuen, eta hark, neskatoaren artelanak ikusi eta gero, bakarrean lan egiteko gomendatu zion, bere sormen naturalean inolako kutsadurarik izan ez zezan.

Beraz, artista autodidakta izan zen, estilo berezia jorratu zuen, bakarra eta sentibera; izan ere, Marga Gil Roessetek

bihotzaren taupadak isilean entzuten zituen: «Zizelkatzen dudanean, barrutik kanpora egiten saiatzen naiz. Pertsonak baino gehiago, ideiak zizelkatzen saiatzen naiz. Formari dagokionez, nire lanak ez dira oso klasikoak izaten; baina, gutxienez, barrentasuna adierazteko ahalegina izaten dute beren barnean».

Marga Gil Roesset, artista aparta izateaz gain, emakume berezia izan zen. Jakintsua, ikasia, sentibera, ederra, bakartia... Haren bizitza laburra interesgarria da oso. Lantegian ematen zituen orduak isilean, lanean; garaiko arte kritikariek, tartean, haren artelanak gorai patzen zituzten, eta berak tinko jarraitzen zuen bere barne munduan. 23 urterekin, Juan Ramon Jimenez idazlearekin maitemindu zen, hark 51 urte zituela.

Harreman berezia izan zuten, baina olerkaria neskatoaren sentimenduekin jolasean ibili zen, eta Margak, 24 urte zituelarik, bere buruaz beste egin zuen.

Gaurtik hasita, maiatzaren 6a bitartera, Gustavo de Maeztu museoan haren lanaren erakusketa zabala ikusi ahal izanen da (marrazkiak eta eskulturak). Halaber, sormenaren eta sun-

tsipenaren artean bizi izan diren bertze emakume artista batzuen ibilbideak aztertu eginen dira. Apirilaren 25ean, Lola Jimenez irakasleak Emakumea eta artea hizpide izanen duen hitzaldia emanen du, eta apirilaren 26an, Magdalena Lasala idazleak Emakumeak literaturan gaia aztertuko du.

→ Kristina Berasain

Larraintzar • La Polla kontzertuan irratia alde

ESAN-ERRAN IRRATIA KUDEATzen duen Ametza kultur elkarteak eta Ultzamaldeko AEK-k La Polla, Samsara eta Khamul taldeak bilduko dituzte biharko jaialdian. Korrika Kulturalaren barnean, gauerdiko hamabietan hasiko da kontzertua, Larraintzarko frontoian. Aipatutako kultur elkarteak Basaburua, Ultzama, Anue eta inguruko bailaretan aritzen den Esan-Erran irratia ardura dauka. Horretaz gain, Pulunpe aldiakaria ere aurrera ateratzen du. Horretarako, hainbat ekitaldi antolatzen du urte osoan sortzen diren gastuei aurre egiteko eta gure kultura sustertzeko: gau-pasak, antzerki emanaldiak eta, oraingo honetan, rock kontzertua. Biharko kontzertuarekin, gainera, Korrika Kulturalen parte hartu nahi izan dute.

Baina ez da hau horren barnean den lehendabiziko ekitaldia. Izan ere, gaur bertan, gaueko hamaiketatik aurrera, mahai futboleko txapelketa izanen da Lizasoko ostatuan. Parte hartu nahi duen guztiak hamar eta erdi tarako bertaratu behar du izena emateko, eta hantxe zozketa egingen dute txapelketari ekitako. Sarien artean Korrikako kirol jertseak, supiztekoak eta bideoak izanen dira. Kontzertua eta txapelketa, beraz, eskualdeko irratia laguntzeko eta euskararen aldeko-lasterketa girotzeko. Apirilaren 7an, larunbatean, helduko da Korrika 12 Ultzamaldera. Goizeko bostak hamar gutxitan Larraintzar herrian izanen da.

→ Txari Eleta

muga enea

MIKEL REPARAZ



Irratian lan egitea orduoro berrogei segundoz larrua jotzea bezalakoa duk», esan nuen, argialdi batean. «Prensa idatzia, aldiz, hori bai tormentua», erantzun zidaten. Egunkari batean eskribitza ezkonduen bizitza duk. Matrimonio latza. Edizioa itxi arteraino han egon beharra, ordenagailuaren uva-izpien aitzinean emazteari kasu egiten. Konpromisoaren kartzela profesionala. Matrimonio latza. Latza-edo, nik, biharamunero kioskoan edo kafesnearekin batera hire artikulua hantxe aurkitzea, badakik nolako plazerra? Horiek umeak dituk, hi, eguneroko seme-alabatxoak, arrapostua. Haurrak: harrotzekoak zenbaitetan, lotsatzekoak bestetzueta, baina arazo franko ekartzen dizkidatenak, beti. Paperean dagoena ez baita uhinen artean galtzen. Zer esan jakin gabe esan nuen bada ordutik ordura etengabe larrua jotzen ibiltzea ere ez dela ahuntzaren gauerdiko

Periodista solasa

eztula. Ez duk, ez, ematen duen bezain samurra. Izan ere, nekagarria ere suertatzen delako, eta, sexuaz esaten denaren kontra, estresantea ere bai. Bai horixe. Estresa, nekea, izerdiz heze, berrogei segundoz ezin aserik, amasestuka, oihuka, aieneka... eta gero akabo, amaitu da, adio, eskerrik asko parlamentuko gure lankideei, «gatozen beste gai batzuetara», konexio interruptus.

Asko ez dela nonbait leitu nuen, leitu, unibertsitate ezezagun bateko katedratiko ezezagun batek egindako ikerketaren berri: sexu kontuetan zerikusi ikaragarria omen du norberaren lanbideak. Nolako ogibidea, hala-koa ohatzean. Bada, kazetarien berri ez zuen jasotzen albisteak, agian periodistaren autozentsura zuhurraren ondorioz. Edo akaso periodisten jokabide sexualak inolako interesik ez duelako. Pentsatu nuen. Nahikoa badu-

gu-eta lanpostuan. Irri intziri patetikoak kazetarien artean, bazkalondoko tertulian. Eta hartan ari ginela, kafetegiko periodista-solasean, sakelako telefonoak bibrazio batean garrasika hasi zitzaizkigun denoi. Nokiak, euskaltel eta amenak astinduka, eta kafe beltzak dantzan mahai gainean. Azken orduko albisteak. Agudo. Istripua, atentatua edo lurrikara nonbait. Agudo. Trasteak hartu eta zoazte taxiz. Agudo. Zuzenean sartuko zarete. Agudo. Programazioa eten behar dugu. Orain, oraintxe bertan, prest. Bagoaz.

Orduz orduko larritzote laburraren ekstasitik begitu nituen egunkarietako lankideak. Lasai zeuden, adrenalina aurreztu nahian bezala, kafeari azken zurruta eman eta erredakziora joateko presarik gabe. Trankil. Amasestuka esan nien, orgasmoaren ertzetan, kontuz ibiltzeko, ez urduritzeko, baina kondoia erabiltzeko. Gutxienez.

Leitza ●

1.300 aldiz euskararen alde

Sarako, Bermeoko eta Leitzako euskaltzaleak Perurenak ezarri nahi duen markaren lekuko izanen dira



San Andres ferietan, ohiko ganadu feriaz gain, Estellerriko ardoen dastaketa eginen dute. ● EGUNKARIA

Asteburu honetan, Leitzako herrian Sarako eta Bermeoko euskaltzaleak izanen dira gonbidatuak. Iñaki Perurena 100 kiloko harria 1.300 aldiz jasotzen saiatuko da. Gainera, gaur gaueko zortzietarako manifestazioa antolatu dute herriko hainbat elkartek eta erakundek.

ASTEBURUAN EUSKARAREN aldeko apustua egin nahi dute Leitzako euskaltzaleek, eta ahalegin horretan, Sarako eta Bermeoko lagunak izanen dituzte gonbidatu. Larunbatean hasiko dira antolatu dituzten ekitaldiak, eta goizean euskara eta kultura arloko ordezkariak bilera eginen dute aurreko lanari buruzko balorazioa egiteko, eta hemendik au-

rrera begira jarriko dira zer egin behar duten erabakitzeke.

Arratsaldean, berriz, bostak aldera, kalejira eginen dute herrian zehar, txistulariak, gaiteroak eta dantzariak lagun dituztela. Hiru herrietako dantza taldeetako ordezkariak kalejiran parte hartuko dutela espero dute antolatzaileek, eta kaleak animatu ostean, dantza saioa eskainiko dute.

Kultur Taldea eta Euskara Zerbitzua arduratu dira bi egunetako egitaraua prestatzen, eta hainbat joko antolatu dituzte. Eguraldi ona bada, eskolako jolaslekuan izanen dira, eta honek laguntzen ez badu, Amazabal pilotalekuan eginen dira.

Euskararen aldeko besta honetarako, bi talde antolatzaileek Iñaki Perurena harrijasotzailea-

ren proposamena jaso zuten. *Goenkale* telebistako saioak 1.300 atal eskaini dituela eta, 100 kiloko harriari 1.300 jasoaldi eman nahi dizkio leitzarrak, arratsaldeko hiruretan hasita. Sei aukera izanen ditu Leitzako harrijasotzaileak marka berri hau ezartzeko. Perurena bere lanarekin ari den bitartean, bisitariak eta herri-tarrek triki-poteoan parte har dezakete; gero, 21:30ean, afarian prest izanen dute eskolan.

Igandean, berriz, hamarrak aldera, ibiltariak bi aukera izanen dituzte; bata, herriko bazterrak ezagutzeko ibilaldian parte hartzea, eta bestea, mendi irteera luzeago egitea, eta hiruzpalau orduko ibilaldian Kornietea gaina eta inguruko mendiak bisitatzea. Bitartean, 11:30ean hasita, kalejiran aterako dira Bermeoko eta Leitzako abesbatzak, erraldoiekin batera. Plazan, pilotariak ariko dira eguerdi partean, eta 14:00ak aldera, eskolako jantokian izanen dute berriro hitzordua, han eginen baita agurtu aurreko bazkaria.

Manifestazioa gaur

Hiru herriek eginen duten senidetze bestaz landara, gaur arratsaldeko zortzietan, euskararen aurkako erasoak salatzeke manifestazioa antolatu dute Udal ordezkariak, Leitzako Euskara Zerbitzuak, Euskara Batzordeak, Euskaltegiak, Marmarik, Aurrera elkartek, Kultur Taldeak, eta Institutu eta Eskolako Guraso elkarteak. *Euskara de non eskubidea* lelopean aterako da manifestazioa plazatik.

→ Eli Belauntzarán

herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Baionatik Finlandiara

Baionako Cassin ikastegiko ikasleek Finlandiara egin duten bidaia aipatzen du **Herria** astekariak bere azken zenbakian: «Cassin-eko hogoi bat ikasle, M. Amestoy eta F. Lafitte-Houssat erakasleekin, zortzi egunez Finlandian egon dira, Ekenas deitu hiriko familietan. Bidaiaren helburuak ziren: beste erakaskuntza sistema baten ikustea, Europa iparraldeko erresuma baten ezagutzea, hego eta iparreko gazteen elkartzeta, eta Europa batasunaren abantailen konprenitza. Ekenas hi-

ria, Finlandiako hego mendebaldean aurkitzen da eta hor gehienek suediarra mintzo dute. Finlandian bi hizkuntza ofizial dituzte, finnois eta suediarra. Azken hau Finlandia osoan, % 6 jendeek bakarrik mintzatzen dute bainan diote munduko minoria lagunduen dela. Eskualde horretan jendea borrokatzen da suediarren bizirik atxikitzeke, erakaskuntza suediarrez eginez, finnois hizkuntza bezala dute eskolan, anglesa ere errexki ikasten dute, telebistan amerikar filmeri esker.

Frantsesa hirugarren hizkuntza bezala hartzen dute batzuek».

«Ekenas-eko inguruetan ibili dira, Fiskars hirian bereziki, hor baita industria sortu eta aspaldidanik baratze gintzako tresneria egiten. Helsinki hiri nagusira ere itzuli bat egin dute. Helsinki Bilboren heinekoa da eta portu hiria ere. Familietan bizitzeak kultura eta jende harreman aldetik ikasleak aberastu ditu, eta loriaturik itzuli dira. Finlandiarrak urrian etorri beharrak dira Baionara».



urdai
aren
mintzoa

Xabier Larraburu


Euskal Mitologia

Hasieran ez zegoen deus ere, Txostena besterik ez. Bertan biltzen zen dena; ongia eta gaizkia, argia eta iluna, beratasuna eta gogorkeria, adostasuna eta liskarra, mementoa eta infinitua. (Eta abar). Baina Txostena pixka bat asperitzen zen eta hiru Azpi-Txosten egin zituen, eta Azpi-Txostenak jaio orduko guda hasi zen. Azkenean, Azpi-Txosten lodiena garaile atera zen, baina Txostenaren Bulegoko giltzak ez zituen, bidaia luze bat egin behar izan zuen Emendakinen Lurraldean. Bidean, Talde Eragilearekin topo egin zuen. «Nora zoaz Azpi-Txosten polit hori?» - galdetu zion Taldeak (maltzurki). «Bada giltza baten bila» -erantzun zuen Azpi-Txosten lodienak. Orduan Talde Eragileak Giltza Orokor batez hitz egin zion Azpi-Txostenari. Bulego guztien atek irekitzen zituen Giltza. Eta Giltzaz gora eta behera, Azpi-Txostena ez zen konturatu denbora aurrera bazihoala eta bere helburua betetzeke zuela, baina, hain ziren xamurrak entzuten zituen hitzak!, hain zen erakargarria Orotariko Giltzaren deskripzioa!, ezen egunak eta gauak eman zituen adidi, eta, bitartean, bere bidean geldirik.

Orduan Txostena, bizi zen mendiaren puntatik, ohartu zen Azpi-Txosten lodiaren geldialdiak eta Talde Eragileari madarikazioa bota zion. Instantean Talde Eragileak milaka Azpi-Taldetan banatu zen eta Azpi-Txostena, Talde Eragilearen maltzurkeriaz bat-batean jabeturik, Azpi-Talde txikitxo haiek zantpatzen hasi zen eta bertan bukatuko zituela ematen zuen, baina Azpi-Talde bakoitzak Gai Orokorren Atal batez hausnarketa egitea erabaki eta hausnarketaren ondorekin Azpi-Talde bakoitzaren bozeramaileak gainontzeko Azpi-Taldeen aurrean hausnarketaren ondorekin azaltzea bazutela deliberatu eta horrela egin zuten. Orduan hausnartu eta hausnartu, azaldu eta azaldu, adostu eta adostu, eta azkenean ondorioetara iritsi ziren. Baina, ai!, bozkatzeko tenorea iritsi zenerako Azpi-Txosten lodiak dagoeneko zantpatuak zituen Azpi-Talde guztiak, eta bertan galdu ziren Ondorioak, eta lurrrin baten moduko zer edo zer besterik ez zen gelditu. Orduan Azpi-Txostenak ulertu zuen Ondorioak ez direla materialak, lurrrinekin antz handiago zutela Fotokopiekin baino, eta bat-batean, Jakintsu bihurtu zen eta argaldu egin zen eta, azkenean, berak ere lurrrin baten moduan munduaren gainetik gora egin zuen. ●

Bizikleta hirian ibiltzeak badu abantailarik, baina baita hamaika arrisku ere

Doroteo Mugeta hiri txirrindulariaren heriotzak agerian utzi ditu ziklistek hirian dituzten arriskuak: autoen lastertasun handia, biribilguneak, trafikoa mantsotzeko gomazko oztopoak, bidegurutzeak... Heriotzak bizikletentzako bideak, bidegorriak alegia, sortzeko beharra azaleratu du. Bizikletazaleen aldarrikapenak gorabehera, Iruñean garraio mota baztertua da bizikleta oraino.



Bizikleten bide gorria



Bidegurutzeak

Hiriko bidegurutzeetan ziklistek tentu handiz ibili behar dute; are gehiago, gelditu eta gero berriz martxan jarri behar badute. Gainera, eskuineko bidetik ibiltzeko beharrak arunt zailtzen die ziklistei ezkerrean jotzea.



Errepide oztopoak

Trafikoa mantsotzeko errepideetan paratu dituzten gomazko oztopoak hagitz arriskutsuak dira ziklistendako, gainera pasatzean jauzi handia eragiten baitute. Trafikoa mantsotzeko borondatea ongi ikusten dute ziklistek, baina oztopoetan eurentzako pasabidea nahi dute.



Biribilguneak

Ziklistendako arriskutsuak dira hirietako biribilguneak, batez ere bide bat baino gehiagokoak direnean. Orduan, ziklistei zail sartzea eragiten zaie sartzera eta ateratzea. Iruñean, Foruen plaza eta Jauregi ikastolako biribilguneak dira arriskutsuenak.

Mantsoago, faborez



50 km/h lastertasun muga ez errespetatzeagatik gertatzen ei dira istripu gehienak hirietan. Eta lastertasun handiak eragiten die beldur gehien ziklistei. «Badirudi lastertasuna mugatzeko seinaleak bigarren mailakoak direla», dio Raimundo Lanasek bizikletazaleak. «Auto gidariak ez dakite lastertasun muga errespetatzeak zer onurak dakartzan». Lanasek dioenez, «muga errespetatzeak segurtasun handiagoa

dakarkie ziklista, oinezko zein gidariari, mantsotze bidez balaztatze distantzia ttipitzen delako». Baina bestelako onurak ere baditu muga errespetatzeak: «Erregai gutiago kontsumitu eta ibilgailuaren mantenimenduan aurrezten da; kontaminazio gutiago dago, mantsotze joatean autoek ke eta zarata gutiago sortzen dutelako; eta, akaso, gidari eta oinezkoen estresa ttipitzen da».

tek autoek baino askoz espazio ttipiagoko behar dute; eta hagitz osasungarria da leku batetik bestera bizikletaz joatea». Hala eta guziz ere, Iruñean ez da ziklista askorik ikusten. Batzuek aitzakiak jartzen dituzte bizikleta ez erabiltzeko: eguraldi txarra egiten duenean ezin har daitekeela, aldapa gehiegi dagoela edota arriskutsuegia dela.

«Araua egin zenean ez ziren bizikletarekin akordatu. Azpiegitura guztiak autoendako eginak dira. Bizikletak kontuan hartzen hasien direnean, orduan txirrindulariek gehiago errespetatuko dituzte arauak». Sukunzak lehen bazuen auto bat, baina halako batean garraio publikoaren eta bizikletaren aldeko apustua egin zuen eta orain egunero erabiltzen du bizikleta. Sukunzak hagitz eskertuko luke bizikletentzako bideak, bidegorriak, egotea.

Lanasen ustez, Iruñean eguraldi txarreko egunak ez dira horrenbeste. «Baliteke eguna hezea izatea, baina euria minutu gutitan bakarrik egin ohi du», dio. Aldapen aitzakia-ri Romerok erantzun dio: «Baliteke Iruñean aldapa anitz egotea, baina inor ez dago beharrik aldatzeko bizikletan igotzera. Bizikletatik jaitsi eta oinez igotzen ahal da».

Balduzen bidegorria

Iruñean bizikletentzako bidea izan zen behin, Julian Balduz alkatearen garaian. Gero Alfredo Jaimek kendu egin zuen. Horretarako arrazoirik izan zuen. «Borondate onez egin zuten, baina onartu behar da gaizki zegoela», erran du Romerok. Edozein joan-etorri egiteko bizikleta hartzen du Romerok, eta bidegorri hura erabili izan zuen. «Ez zuen ez abiapunturik, ez helmugarik. Eta istripuak egon ziren, porlanezko pibotetzar horiek zirela eta. Orduetik bidegorri horrek estigmatizatuturik gaitu. Bidegorria aipatuz gero, esperientzia hori jartzen dizute adibidetzat eta akabo eztabaida».

Hiri arriskutsua

Badirudi hirugarren aitzakia erreala gogoa dela. Hirian bizikletaz ibiltzeak badu arriskurik. Arrisku nagusia autoen lastertasun handiak dakar. Armada, Nafarroa Beherea edo Baiona bezalako etorbide handiak hagitz arriskutsuak dira ziklistendako. Autoak oso laster pasatzen dira bizikleten ondotik. Eta autoen lastertasuna moteltzeko karrika askotan paratuak dituzten gomazko oztopoek mina egiten diete ziklistei. Eta, zer erranik ez, biribilgune handiek, non bizikletari oso zaila egiten zaie sartzera.

Iruñeko jendea bizikletaren onurak konbentzitzeko bide luzea egin beharko dute bizikletazaleek. Orain bi kanpaina dituzte esku artean CCCPkoek: batetik, bizikletaren bidegorria galdegiten duten afixak paratzen ari dira, eta, bestetik, administrazioko kargudunekin bilerak izaten ari dira, Europako Batzordeak egin duen «Bizikletan kerik gabeko hirietarantz» liburua aurkezteko. «Bidegorriena gutinaka egin daiteke, peatonalizazioarena bezala», aipatu du Sukunzak. «Ez dute zertan berehala hiri guziaz bidegorriz bete. Bat egin, ikusi zer gertatzen den eta eskaeraren arabera gehiago egin». Beraz, bide luzea oraindik.



ARGAZKIAK • MIKEL SAIZ

ROTEO MUGETA ZIKLISTAREN HERIOTZA salatuz, 500 bat txirrindulari bildu iragan larunbatean egin zen martxan. Zeteluko plazatik Beloso aldaraino joan ziren bizikletazaleak, «bizikleta garraio gisa biltzea zabaltzea nahi duen» CCCP elkartek deituta. Iruñerriko Txirrindulari Elkartek horrek 230 bat kide biltzen ditu; ho-

rien artean, Raimundo Lanasek (30 urte), Jesus Sukunza (41) eta Pepe Romero (48). Hiru txirrindulari horiek bizikletaren gainean hitz egin dute NAFARKARIArekin.

Bizikleta ez erabiltzeko aitzakiak
Lanasek zerrenda luzea osatu du bizikletaren abantailekin. Bi aipatzeak: «Bizikle-

Bizikletaz oraintxe



Raimundo Lanasek bizikleta mezulari bezala egiten du lan, Iruñeko Oraintxe enpresan. Oraintxek, besteak beste, Nafarroako Gobernuaren mezuak eramaten ditu. 1994ko bukaeran sor-

tu zen, Gaztelan Fundazioari esker, eta egun zortzi mezulari ditu. «Egunean 40 bat kilometro egiten ditugu», erran du Lanasek. Lanasek bizikletarekin lan egiten du, eta bizikleta erabiltzen du lanaz kanpoko joan-etorri guztiak egiteko, «ez bada neska-lagunarekin paseatzeko». Garai batean autoa erabiltzen zuen, baina laster ikusi zuen egiten diren joan-etorri asko ez dagoela autoarekin egin beharrik, eta bere garraio ohiturak aldatu zituen. «Ez gaude autoaren kontra», gaineratu du. «Autoaren erabilera irrazionalaren kontra baizik. Argi gera dadila».

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador



panpilonia zirkus

Pello Argiñarena



Takonera parkean landare exotikoak eta bertakoak biltzen dira. • MIKEL SAIZ

Erdaraz izkiriatu zuten idazle nafar bi (1): Jose Maria Luzaideko

Joxemari Iraburu Mathieu erro luzaidarreko irunsemea erdal idazle aipagarria izan zen, euskal kutsu nabarmeneko ipuin liburu bi argitara eman zituen.



Irunsemea izanagatik ere Iurasoen etorkia bere egirik Joxemari Iraburu Mathieuk luzaidartzat jotzen zuen bere burua, eta hala agertu zuen bere *alter ego*-aren bidez, idazlanak izenpetzeko zerabilen gaitzizena Jose Maria de Luzaide baitzen, Luzaideko Joxemai beraz. Orain dela 102 urte jaioa, 1899ko martxoaren 31an hots, mendeurrena nahikoa oharkabean igaro zitzaigun, ezpada Carlos Mata Indurainek *Pregón* berrituan azaleratu zuen aipamenarengatik. Eskasegi edozein modutan ere. Lanbidez legegizona zen Iraburu idazgintzan egin zen ezagun bereziki, *El Pensamiento Navarro* kazetan eta *Pregón* aldizkarian gutxi gehien agertzen zituengatik. Hauetan atera zituen zenbaiten bilduma orraztuak izan ziren bere bi liburu bakarrak, aipatuak oso suertatu ziren *Boiras* eta *Se vende perro de caza*.

Bigarrenaz denez bezanbetean dezagun 1976an eman zuela argitara Iruñeko Gomez argitaletxeak Francis Bartoloz ziren marrazkiekin. Sarreran egileak dioenez, honakoxeak *Pregón*-en agerturiko 19 ipuinen moldaketa dugu, ahanzturatik salbatzearen. Hutsala izan zen neurri haundi batean, ordea, Irabururen asmoa, eta hala ematen du aditzera egunean iruñarren artean Joxemari Luzaidekoak duen ospeak. Hobetzat jotzen bide du Matak Irabururen bigarren liburu hau, lehenbizikoa atera zenetik berrogeita hamar urte idazkintzan hoberako behar dutela irizten baitio Nafarroako Uni-

bertsitateko doktoreak, gaiak zein narrazio teknikak berritze-ko balio baitzuen nonbait denboraren higitzeak. Ez gara guztiz bat etortzen, aldiz, baieztapen honekin. Nabari da bigarren liburu hau atera zenean Iraburu zahartuxea zebilela, hilurren ere bai, beranduxea-goko 1983ko uztailaren 5ean zendu baitzen bere Iruñean, Sanfermin urrinetan. *Se vende perro de caza y otros cuentos* bilduman batasun gutxi da, eta narrazio metaketa dugu haborroxeago, lehenbiziko *Boiras* horrekin horren nabari agitu ez zena bederik ere. Bestalde, gerratea eta segituko diktadura iger daitezke *Pregón*-eko ipuiotan. Beste aunitzek egin bezala, guztiz gustoz ez bazen ere, Iraburu ere ira-



bazleekin lerraturik agertu zitzaigun, freskotasuna, egiazkotasuna eta gaien interesa txipitu zizkiona. Hori da arrazoia geroantzean gure erdal literaturan nabarmendu ez diren besteekin batera kartzeko. Bederen euskaraz idatzi izan balu..., baina ez zen horretara ausartu.

es haundiagokoa dugu, euskaldunok bereziki. Liburuak 1922an atera zen, Iruñeko Higinio Coronasen etxean. Azpitituluak adierazten duenez, *Narraciones, poesias y comentarios históricos en torno a Roncesvalles*, saski-naski aberatsa dugu sasiluzaidar gazteak eskainirikoa. Matari jarraikiz, Irabururen lana euskarok irekiriko ildoan kokatu beharra dago, Villosladaren, Campiónen, Iturralde-Suiten, eta area-

go, Argamasilla de la Cerdaren zein Rodeznoko kontearen lanekin batera. Matak ez du berrikuntza tematikorik somatzen horretan, eta ausaz arrazoia du, bigarren liburuarekin hein batean gertatzen den legez Salinasen, del Camporen, del Burgoen zein García Serranoren lanekin erkatzen badugu. Haatik, garaikideek gogoko izan zuten Irabururen lana, Zalbak eginiko sarrerak salatzen duen bezala. Zazpi dira honetarako Iraburuk jaso narrazioak, eta benetako Luzaide baino haruntzagokoa ez den baliz-



ko euskal hiriren batean kokaturikoak dira zazpiak, poetikotasun hits batez koloreztatuak eta euskararen galerrak akuilaturiko egoz sortutakoak dira zazpiak, izan zen eta izanen ez denaren malenkoniak sortutakoak alegia.

Orreagaren omeneko olerkiak soneto dozena bat dugu, eta hauen atzean historiazko hiru labur hauek: *Roncesvalles, poema histórico del siglo XIII, Nuestra historia y nuestra lengua* eta *Comentario de comentarios*. Bigarrenean, bada, Nafarroako historia eta hizkuntzaren gaineko saioa dugu.

Bere aburuz, bai bata eta bai bestea egoera ezin okerragoan zeuden Nafarroan, iker-tzaileek baizik beste inork ezagutzen ez baitzuen erresuma zaharraren historia, eta euskararen galera aguro zihoan gauza baitzen. Hortaz, «la historia y la lengua, nuestros dos más ricos tesoros deberian ir ligados a instituciones durables e influyentes como lo son sin duda alguna la escuela y la parroquia».

Parke mundialak

UMORE TXARREKO GIZON ZAHAR batek bertan alokatzen zituen bizikleta baten gainean ikasi nuen oreka zer zen. Handik gertu, kaiola batean preso zegoen Txarli tximuak erakutsi zidan askatasun gosea zer zen. Parkearen sarreran zegoen kiosko txikian, hiru pezetaren truke, erosi nuen lehen eta azken aldiz tutti fruti zaporeko izozki nazkagarria. Iruñeko Udalak plazaraturiko Gida Berdeak azaltzen duenez, Takonera XVII. mendetik aurrera ekin zioten zuhaitzak landatzeari. Gaur egun mundu oso-ko landare exotikoak eta bertakoak elkarren ondoan ikus daitezke.

Beste inguru batean, soinu bereziak entzuteko parada izan nuen: ume garaian, suhiltzaileen parke gorrian, sirenen zalaparta. Gerora, handik hurbil, gozatu nuen aurreneko jazzaren melodiarekin kafetegiko terrazan. Harresien inguru horretan itzalak dira nagusi. Arga ibaian erripa gainean dago kokaturik Media Lunako parkea. 1935. urtetik aurrera da publikoa eta lorategi bihurtu zen hamarkada bat geroago.

Nikotinaren kea irensten Iruñeko beste kokagune batean ikasi nuen. Hango txoko ezkutuetan sentitu nuen lehen musuaren kilika. Uda partean, hantxe ematen genituen orduak belardian etzanda hitz eta pitz. Gotorlekua da harresien ondorioz, hiriaren erdialdean eratu den parkea. Armadaren eskuetan egon zen

1964. urtea arte. Gerora Gaztelugibela egin zuten bere inguruan.

Bertatik ez oso urruti bizi zen gosez amorratzen zegoen Imenasako zakurra. Lantegiarekin batera desagertu zen gizarajoa. Inguru horretara ez azaltzeko esaten ziguten drogazaleak biltzen zirelako bertan. Han dago 1996. urtetik japoniarren ereduarekin bat egiten duen Yamaguchiko parkea. Naturaren sinboloak dira parkeak ekialdean. Hori dela eta, zuhaitzak eta landareak ez ezik, mendixkak, harriak eta ur jauziak ikus daitezke.

Donibanen bertan jaio eta hazitakoa naiz. Etxetik gertu zeuden malkarretan ikasi nuen kaniketan jolasten. Hantxe zikintzen nituen egunero galtza motzak lokatzez. Elurra egiten zuenean plastiko zaharrekin maldan behera ziztu bizian ibiltzen ginen. Lurrez bete zuten duela bi hamarkada Ibarbide edo Vaguadako parkea.

Beste hainbat parke ere badago Iruñean: Argaren norabide bihurriaren ertzetan, Biurdanakoa; ibaiaren inguruan jarraituz, Argako parkea aurkituko dugu, Burlatan hasi eta Orkoiengo herriraino luzatzen dena; Txantrean bost kontinenteetako landareak biltzen dituen Munduko Parkea; Redin; Antoniutti; unibertsitateetako campusak; eta ahaztu ditudan beste zenbait ere badira. Parkeen zerrenda luzeegia da tarte motzean nabarmentzeko.

Ziria

• Motxorrosolo •

Metaketa

BOZEN INGURUKO BALORAZIOEK GOGOETARAKO BIDE BEHAR lukete. Emaitzek erakutsi digute horrenbeste aipatzen den metaketa nola gauzatu daitekeen. Alde honetan, zaila iruditu arren, meta harrikoan desegiten ari dira. Asko dugu ikasteko. Fededunen erresuman, sinesteak lan du.

Beñardo Goietxe

'ETXETIK PLAZARA' ALDIZKARIKO KIDEA

«Herriarrei alfabetatzeko bidea zabaltzea da xedea»

Etxetik Plazara Bortzirietako, Malerrekako eta Leitzaldeko IKA euskaltegiek helduen alfabetatzerako prestatutako aldizkariak eta irratsaioak osatzen dute. Guztira zazpi lagun aritzen dira zeregin horietan, tartean Beñardo Goietxe beratarra.



MIKEL SAIZ

N AFARROAKO EREMURIK EUSKALDUNENEAN banatzen da Etxetik Plazara aldizkaria, jendeak etxean ariketak egin ditzan. Irratsaioa, aldiz, astero ematen dute eremu horretako bi irratietan.

■ Bi urtez aldizkaria argitaratu gabe egon ondotik, berriz ere hasi zarete Etxetik Plazara karrikaritzen. Zergatik egon da tarte horretan aldizkaria karrikaratu gabe?

Diru laguntzarik izan ez dugulako. Lehen Europatik ematen zizkiguten diru laguntzekin egiten genuen. Nafarroako Gobernuak ere ematen zigun laguntza bat, baina Europakoa ukatu zigituenetik argitaratzeari utzi behar izan genion, Nafarroako Go-

bernuarenarekin bakarrik ezin genuen egin eta. Orain, argitaratu beharra genuela iritzita, eskualdeko euskara mankomunitateetara eta zenbait erakunde pribatutara jo dugu laguntza eske.

■ Egitasmoa Bortzirietako, Malerrekako eta Leitzaldeko IKA euskaltegien ekimena da. Zein helburuekin hasi zineten argitaratzen, eta hasierako helburu haiek al dituzue oraindik?

Etxetik Plazara egitasmoaren helburua da, inguru honetan bizi den jende gehiena euskalduna izanik, jende horri alfabetatzeko bidea edo gogoia irekitzea. Lehengo eta oraingo helburuak ber-

berak dira. Aldizkarian ariketa batzuk proposatzen ditugu. Irakurleek, horiek egin eta erantzun ondotik, guri bidali behar dizkigute. Guk zuzendu ondotik, berriz ere eurei bidaltzen dizkiegu.

■ Etxean egiteko ariketak dira. Alfabetatzera bideratzeko ahalegin horretan erabilgarria al da? Sumatzen al da matrikulazioan Etxetik Plazara bultzada bat izan dela euskaltegira hurbiltzeko?

Ez dakit, hori arrunt zaila da jakiten. Beharbada, batzuentzat hori izanen zen arrazoia, baina jakitea zaila da.

■ Nolako egitura du aldizkariak?

Lehenbiziko atalean lezioa ematen dugu, zerbaiten zuzenketa edo araren bat. Gero horri dagozkion ariketak egiten ditugu. Horren ondotik, albiste bitxiak ematen ditugu, eta horren ondotik sinonimoak landu, edo egunkarietan ateratzen diren hitz berri horiek ikasteko, hiztegia lantzen dugu... hori da, funtsean.

■ Zer harrera du herriarreen artean? Erantzunak bidaltzen dituztenen soslaia egiterik badago?

Erantzuna, orain hasi garenetik, arrunt ona izan da. Bi ale ateratu ditugu, lehenbizikoan arrunt erantzun ona izan genuen, eta bigarrenetan pixka bat jaitsi da, ez dakit hasierakoa nobedadea zelako edo, baina erantzuna ona

«Bertako bi telebistetan saio labur bat egitea pentsatua genuen, astean behin, alfabetatzera hurbiltzeko, edo behar hori sentiarazteko. Oraingoz ezin dugu egin, diru laguntza faltagatik, baina buruan dugu»

da. Jende gaztea da, baina 50 urtetik goitikoa ere bai, eta haurren batek ere bidaltzen du. Horrelako gauzetan gertatzen den bezala, emakume gehiagok parte hartzen du.

■ Xorroxin eta Aralar irratietan ere baduzue saioa. Zeri eman diozue garrantzia irratian?

Helburua antzekoa du, baina irratian mintzatzekoa da. Gauza bertsua egiten dugu. Astero egiten dugu lezio ttiki bat, azalpenak eman, trakets erraten diren gauzak zuzendu, berriak diren gauzak argitu, deklinabidea landu, nola idatzi behar diren zenbait gauza... horren inguruan aritzen gara. Ez dugu ariketarik egiten, horiek aipatu soilik. Gero, kulturaren inguruan aritzen gara, liburu baten inguruan,

idazle baten inguruan, gauza bitxiak, ipuinak, idazleak ezagutzeari, onomatopeien inguruan, toponimiaz... Gauza anitz egiten dugu, eta horrekin bai, gero galderak egiten ditugu, eta jendeak adi-adi egon behar du, eta erantzun behar digute. Erantzuna polita izaten da, jendeak parte hartzen du, anitz. Toponimiarrekin eta bertsoekin jende anitzek deitzen du, eta euren herriko bitxikeriak, toponimoak eta abar kontatzen dizkigute. Bizia izaten da.

■ Telebistarako egitasmo bat bazenuten, eskualdean dauden Ttipi-ttapa eta Xaloea telebistak aprobetxatuz. Arrazoi ekonomikoengatik, alde batera utzi behar izan duzue. Ikus-entzunezkoek duten garrantzia aintzat hartuta, estrategikoa izanen da erdiko epean hori abian paratzea, ezta?

Bai. Guk saio labur bat egitea pentsatua genuen, astean behin, alfabetatzera hurbiltzeko, edo behar hori sentiarazteko. Oraingoz ezin dugu egin, baina buruan dugu. Betiere diru laguntzen baitan dago, gauza hauek diru laguntzarik gabe ezin baitira aitzinera eraman. Etrkizuna bermatuko bada, diru laguntzak ziurtatu beharko dira, bertzela zail izanen baita argitaratzen segitzea.

→ Jon Abril

soslaia

Europako diru laguntzekin paratu zuten Bortzirietako, Malerrekako eta Leitzaldeko IKA euskaltegiek Etxetik Plazara egitasmoa martxan, baina, diru laguntza horiek ukatuz bat, bertan behera gelditu zen egitasmoa. Orain, zati bat eskualde horietako euskara mankomunitateen laguntzarekin eta zenbait erakunde pribatuenarekin beteko dute, baina baliabideak ez dituzte aski izanen.

Hilabetero 8.000 ale banatzen dituzte, doan, Bortzirietan, Malerrekako, Baztanen eta Leitzaldean. Irakurleek ariketak egin, eta euskaltegietara bidaltzen dituzte, han zuzen ditzaten. Parte-hartzaile guztien artean sari bat zozkatzen dute hilabetero.

Euskaltegi bakoitzeko irakasle bana aritzen da aldizkarian, eta astero elkartzen dira Donezteben. Irratikoak, berriz, bi lan talde dituzte, bat Xorroxin Irratirako, Malerrekako eta Bortzirietakoek prestatua, eta bertzea Aralar Irratirako, Leitzaldeko euskaltegiaren ardurapean.





Nafar Kronika

Martxelo Sotes

Faraoikeriak

BADA JENDEA EUREK AGINDUTAKO ERAIKUNTZA erraldoiengatik historiara pasatzen direla uste duena. Eta hein handi batean horrela bada ere, egon badago bestelako arrazoirik haien izena urrezko letrekin entziklopedietan azaltzeko. Baina azken horiek ez dira batere garrantzitsuak. Edo horixe da, nonbait, politikarien artean hedatuen dagoen ustea. Bai, lagunok, hiriburu honetako alkateak ere, Ona Iholandak, hala uste du.

Ez, lagunok, faraoi berriek ez dituzte piramideak atsegin, hala balitz sikiera...

Ingeniari lan erraldoiak dituzte gustuko; igual dio zelako erabilgarritasuna duten. Berrez, tamaina handikoak eta proportzionalki erabilgarritasun gutxiak badira, eta sekulako dirutza balio badute... gogo handiagorekin ekinen diete. Izan ere, badu aitzindari udal-faraoigintza honetan.

Gogoan duzue hasiera batean zabor bilketa pneumatikoa plangintza martxan jarri zutela? Gogoan duzue horretarako sartu ziguten ditxosozko entibadora? Eta inork al daki zertarako demonio balio duen Alde Zaharra mutur batetik bestera lurpetik zehar katzen duen bunker amaigabeak? Luzaro iraunen du Iruñeak gruyere gazta honen gainean? Guzti-guztia ibiltariendako eremu aldarrikatuko dute, Karlos III.aren etorbidean bezalaxe, billabesek zola hondora ez dezaten? Bai? Tira ba, egungo alkateak ez du gutxiago izan nahi eta dagoeneko Gazteluleku... ai, barkatu... Gazteluko plazari dagokio txanda. Zeri eta Iruñeko egongelari, hain zuzen ere. Aparkaleku-zaletasun hau urrunegi eraman dute.

Aspaldiko kontua da, plazarik esanguratsuena den bezalaxe, Alde Zaharreko gunerik zabalena delako. Batek daki zer gertatuko zaion Kioskoari. Titaniozko berri bat jarriko dute zaharraren ordean, akaso? Boladan daude eta... Eta plaza hornitzen duen mosaikoak, 50 urte eskas baditu ere, zertan bukatuko du?

Norendako izanen dira aparkaleku horretako plazak?

Aukeran nahiago plaza zabala eta bakarra guztiontzat, hamaika plazarxo bakar bazuentzat baino.

gure aukerak

KORRIKA KULTURALA

- ▶ **Lizarrak:** Mikel Urdangarinen kontzertua. Gaur, 20:00etan, Los Llanos zinema aretoan. Eta ondoren, 22:00etan, afaria gaztetxean.
- ▶ **Gares:** Korrikaren bideoa eta lunch-a. Gaur, 20:00etan, udaletxe erabilera anitzeko aretoan.
- ▶ **Irunberri:** Pilota partida Asegareko bigarren mailako pilotarien artean. Gaur, 22:00etan, frontoian.
- ▶ **Erronkari:** Mendi ateraldia Nabaratorra Erronkariko Natur Interpretazio Zentroaren eskutik. Bihar. Ibilbidean azalpenak eskainiko dira.
- ▶ **Burlata:** Bertso bazkaria Bittor Elizagoien eta Mikel Altzuartekin. Bihar, 14:30ean, Axular elkartearen.
- ▶ **Otsagi:** Sagardotegia. Bihar, 21:30ean, 3.000 pezetaren truke.
- ▶ **Larraitzar:** La Polla, Samsara eta Kamul taldeen kontzertua. Bihar, 00:00etan, frontoian.
- ▶ **Gares:** Selektah Kolektiboaren kontzertua eta DJ besta: DJ Andy (Codigo), DJ Aniana (Nicolet) eta DJ Creator (U-Bhan). Bihar, 00:00etan, Gares aretoan.
- ▶ **Gares:** Amaia Zubiriaren haurrentzako kantaldia. Asteazkenean, 17:00etan, udaletxe erabilera anitzeko aretoan.

BERTSOLARIAK

- ▶ **Donibane-Garazi:** Bertsolariak ikastolarat kanpainaren baitan, gaur, 09:00etan, Lizeoko gela nagusian Amets Arzallus, Eneitz Zabaleta, Miren Artetxe eta Sustrai Kolina izanen dira.
- ▶ **Iruñea:** Nafarroako Txapelketako 2. final-aurrekoa egingen dute gaur, 21:30ean, Iruñezar euskaltegian. Parte-hartzaileak: Estitxu Arozena, Bittor Elizagoien, Iñigo Olaetxea, Ekintza Landa, Josema Leizta eta Aritz Saragueta.
- ▶ **Izpurak:** Nafarroako Txapelketako 3. final-aurrekoa egingen dute

igandean, 16:00etan, Fauxtin Bentaberrin. Parte-hartzaileak: Amets Arzallus, Sustrai Kolina, Juan Mari Lopez, Jose Juan Zubieta Etxabe, Ekhiñe Etxepeteleku eta Oskar Estanga.

HITZALDIAK

- ▶ **Berriozar:** Pako Aristi Autostopeko ipuinak bere liburuaz ariko da gaur, 20:00etan, kultur etxean.

ZINEMA

- ▶ **Iruñea:** Karrikirik antolatutako zinemaldiaren baitan, gaur Gu bai gu (Lo mejor de cada casa)

filma eta Hego haizea, ero haizea film laburra emango dituzte, 20:00etan, Golem Baiona zinema aretoetan.

ANTZERKIA

- ▶ **Iruñea:** Dar-Dar taldeak Alizia bitxikerien lurraldean antzezlan taularatuko du bihar, 12:00etan, Mikael aretoan.

ERAKUSKETAK

- ▶ **Iruñea:** Iruña Cormenzana Lopez margolariaren lanak Ormolu galerian daude ikusgai (Paüliño Caballero, 42), hilaren buka-

era arte, lanegunetan 10:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 20:00etara.

BESTELAKOAK

- ▶ **Iruñea:** AHTren aurkako hama-bostaldia bukatzeko, gaur sagardo jaia egingen dute Euskal Jai gaztetxean, 21:00etan; egurra, parrila, sagardoa, musika, entsalada eta postrea 500 pezetaren truke. Beste guzia norberak eraman behar du. Igandean mendi martxa, Ezkabara Iruñerrian egin nahi dituzten proiektuak ikusteko. Martxa Gazteluko plazatik aterako da, 11:00etan.

• JOXE LACALLE



Irrintzik sei urte

Oraindik ere badira Nafarroan, euskararen gainean erortzen ari den guztia alde batera utzita, euskararen alde jo eta ke lan egiteaz landara, hori ere ospatu nahi dutenak. Iruñeko Irrintzi euskaltegiak sei urte bete ditu. Sei ez da asko eta ez da zenbaki borobila. Baina AEK-ko lagunek ez dute horrelakorik behar euskararen aldeko lana ospatzeko, eta bihar bertan jaia egingen dute Donibaneko Vaguadan paratuko duten karpan. Honatx egitaraua:

- 10:00: Haurren txokoa (antzinako jolasak, txokolate jatea, ipuin kontalaria)
- 10:30: Herri kirolak (futbito txapelketa, konbinatua -zaku lasterketa, sokatira...-)
- 11:00: Hainbat ikastolako dantza taldeen erakustaldia.
- 14:30: Herri bazkaria.
- 16:30: Play-backa eta antzerkia.
- 18:00: Dantzaldia.